

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta dragoiaren bihotza

ILUSTRAZIOAK
Marko | Maëla



erein

ANNA KOPEK

eta dragoiaren bihotza

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2023ko azaroan

Diseinua eta maketazioa: Erein argitaletxea
Azaleko eta barruko ilustrazioak: Marko | Maëla

© Marko | Maëla, ilustrazioena
© Haritz Larrageta, testuarena
© EREIN. Donostia 2023, edizioarena

ISBN: 978-84-9109-914-7
L. G.: D 947-2023

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
e-posta: erein@erein.eus
www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu
Zubillaga industrialdea 9
20560 Oiñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
e-posta: gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta dragoiaren bihotza

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein

I

Beijing



—Letra normalak dituen herrialde batera joango al gara inoiz? —galdetu zuen Jokinek kartelak ikustean.

Beijingeko aireportuan ziren. Hirugarren terminalean zeuden, eta nonahi ikusten ziren dendak jendetzaren artean.

—Ez dira letrak, Jokin —erantzun zion Uxuek—. Oso sistema diferentea da; ikur bakoitzak silaba baten soinua du.

—Txorien lorratzak dirudite...

—Ba, hain zuzen ere, kondairak dio horietan inspiratu zela sortzailea...

—Zatozte; hemendik da —moztu zituen amak.

Bazter guztietan zeuden Munduko Saskibaloitza Txapelketarekin lotutako irudiak. Aireportutik aterata, taxi bat hartzen saiatu ziren.

—Horiek dira taxiak? —galdetu zuen Jokinek, harrituta, alderik alde marra hori batez gurutzaturiko kolore ezberdinetako autoei begira—. Zergatik ez dituzte osorik pintatzen?

—Bueno... —hasi zen Uxue—. Ez da ideia txarra. Zertarako gehiago?

Gidariak ez zuen ingelesez egiten, baina amak hotelaren izena esan zionean baiezko keinua egin zien buruaz, eta martxan jarri zen. Ikaragarria iruditu zitzaizkien Beijing. Trafiko handia zegoen hirian, eta ugariak ziren garaiera handiko eraikuntza modernoak.

—Zenbat biztanle ditu hiri honek? —galdetu zuen Jokinek.

—22 milioi —erantzun zion arrebak.

Hotelera iritsi ziren. Lau izar zituen. Gela bakarra hirurentzat. Baina handia zen, eta hiriaren ikuspegi zabala eskaintzen zuen leiho handia zuen.

—Polita da gela —esan zuen Jokinek.

—Hemen egongo gara zazpita arte. Zazpitan Shenzhenera joango gara bigarren talde faserako, eta hamarrean itzuliko gara; hiru gau izango dira. Bueltan hotel honetan egongo gara, baina bi logelatan.

—Zer da hau? –galdetu zuen Jokinek komunetik.

—Komun japoniar horietako bat da –erantzun zion amak bainugelari sartutakoan—. Ez nekien txinatarrek ere erabiltzen zituztela.

—Ez dut uste oso ohikoak direnik –esan zuen Uxuek—. Hotel batean gaudenez, agian...

—Nola erabiltzen da?

—Komunera joaten irakatsi behar dizugu, Jokin? –erantzun zion arrebak burlati.

—Emmm... Oso graziosoa zarela uste duzu, ezta?

—Baaaaale... Begira: botoi hori sakatuta ur zurrusta batek ipurdia garbituko dizu, eta beste botoi hori sakatuta lehortu egingo dizu.

—Benetan? Eta hau?

—Ez dakit... –erantzun zuen neskak, eta botoia sakatu zuen—. Hara! Musika du!

—Bueno. Aterako zarete, mesedez? Probatu nahi dut –esan zien Jokinek serio.

Gelak hiru ohe zituen, banakakoak, eta hirurak berdinak. Ama maleta husten hasi zen, eta Uxue horretako koadroei begira gelditu zen une batez; tinta txinatarrez marraztutako paisaiak ziren. Ondoren, leihora hurreratzen ari zela, irribarretsu atera zen Jokin komunetik:

—Asmakizun aparta da komun hori.

Uxuerengana joan zen, leihotik begiratzera. Hama-
bigarren solairuan zeuden, eta ongi ikus zitekeen hiria.

—Kutsaduragatik ikusten da zerua hain grisa? —gal-
detu zion arrebari.

—Bai... Izugarria da hemengo aireak duen polu-
zioa.

—Aterako gara zer bait jatera? —galdetu zien amak.

Errepideak autoz beteta zeuden, Kairon baino or-
denatuago baina Iruñean baino askoz nahasiago. Es-
paloietan jende andana eta, tarteka, banaketan
zebiltzan motor elektrikoak oinezkoen artean.

—Wanfunjing kalea hemendik gertu dago —esan
zuen amak—. Jateko gauza asko omen dago han.

—Begiratuko dut mugikorre... —hasi zen Uxue—.
Hara! Ez dabilkit aplikazioa; ezin dut mapa ikusi.

—Aplikazio eta sare sozial batzuk ez dabilta
hemen; gobernuak mugatu ditu —azaldu zuen amak.

—Zergatik? —galdetu zuen Jokinek.

—Bueno... Gobernuak uste du bere interesen
aurka doazela.

—Zein interes?

—Ez dakit, maitea... —Ama, une batez, pentsakor
geratu zen—. Lehia ekonomiko eta teknologiko handia
dago Estatu Batuen eta Txinaren artean. Imajinatzen
dut horregatik izango dela.

—Kito! Topatu dut beste aplikazio bat. Oso gertu dago. Donganmen etorbideraino joan behar dugu eta, hara heldutakoan, ezkerretara.

Jateko gauza bitxienak zeuden kale hartan: eskorpioiak, itsas zaldiak, kilkerrak... Hain arrotza egiten ez zitzaien janaria erosi zuten: *jianbing* izeneko krepo moduko batzuk. Asko gustatu zitzaizkien. Janari postuez gain, Wanfunjing kaleak bazituen denda pilo bat, eta jende asko zebilen batetik bestera erosketak egiten. Handik gertu zegoen Hiri Debekatua, eta harantz joan ziren gero.

—Debekatuta baldin badago ezingo gara sartu —esan zuen Jokinek.

—Hiri Debekatua garai bateko enperadoreen bizilekua zen —azaldu zion amak—. Baina, gaur egun, bisitatu ahal da. Ikusgarria omen da.

Heldu zirenerako, baina, itxita zegoen.

—Ikusten? Debekatuta dago sartzea.

—Ixo! Baboa... —bota zion Uxuek anaiari, barrez.

—Goizeko zortzi eta erdietatik arratsaldeko lau eta erdietara dago zabalik —esan zien amak sarreran zegoen kartelean irakurtzetik bueltan—. Bihar, goizean goiz, txapelketarekin lotura duen hitzaldi batera joan behar dut, baina ordu bata aldera hotelera joan eta zuzenean etorriko gara hona. Ados?

Hotelerako bidean, komunera joateko beharra sentitu zuen Jokinek. *Jianbing*-ak, itxuraz, digestioa konplikatu zion.

—Horiek komun publikoak dira?

—Bai, baina bidaia gidan irakurri dudanaren arabera, gehienak... —hasi zitzaion arreba.

—Itxaron nazazue —moztu zuen Jokinek—, joan behar dut.

Sartu eta segundo batzuetara kanpoan zen berriz.

—Goazen hotelera; aguantatuko dut.

—Ez da hotelekoa bezain zoragarria, ezta? —galdetu zion Uxuek.

—Zulo bat baino ez da! Zulo zikin bat lurrean. Ez dakizue zer-nolako kiratsa dagoen hor.

—Abisatzen saiatu naiz...

—Goazen hotelera.

Hotelera heldutakoan ziztu bizian sartu zen Jokin komunean. Minutu batzuk geroago, aurrekoan bezalaxe, irribarretsu atera zen. Ama bere paperak ordenatzen ari zen mahaian, eta Uxuek, ohean eserita, portatila zuen belautan gainean.

—Zertan zabilta? —galdetu zion anaiak.

—Txinako gobernuak Interneten ezarritako mugak saihestu nahian nabil...

—Zer zara orain, hackerra?

—Ez... Badira programak horretarako, eta jendeak erabiltzen ditu, baina gehienak ordaindu behar dira.

Jokinek komiki bat atera zuen maletatik eta ohean etzan zen irakurtzera. Uxuek eta amak beren kontuekin jarraitzen zuten. Afaltzeko ordua heldu zitzaienta eta hoteleko jatetxera jaitsi ziren. Zabala izanik menua, gustura afaldu zuten hirurek.

Hurrengo goizean, goizeko sei eta erdiak aldera apurtxo bat zabaldu zituen Uxuek begiak. Ama janzten ari zen; mezu bat idatzi zien papertxo batean eta gosaltzera jaitsi zen. Atea ixtearekin batera itxi ziren, berriz, alabaren begiak. Zortziak jo berritan esnatu zen Jokin. Gutxitan altxatzen zen arreba baino lehenago. Komunerantz zihoala ikusi zuen amaren mezua.

—Zer dio? —galdetu zion Uxuek, begiak igurtziz.

—Betikoa: «egun on», lanera joan dela, zerbait ekarriko duela bazkaltzeko eta «muxu handi bat bioi» —laburbildu zion—. Komunera noa.

Baina komunera heldu baino lehen lau kolpe entzun zituzten atean. Ohean eseri zen Uxue. Geldirik geratu zen Jokin. Beste lau kolpe.